



OINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresan hauek dira hautatutako ekintza batzuk:

Batera enpresa ezagutarazteko, hasiera batean, aurkezpen bat egingo dugu jendeak jakin dezan gure enpresa zertaz doan eta aldi berean informazioa lortzeko egingo dugu. Ekitaldi horretan bezeroei gure enpresari buruzko informazioa eskainiko diegu eta ekintza desberdinak planteatuko ditugu egun horretan, jendeak ideia bat egin dezan gure hurrengo jarduerak nondik nora joango diren.

Bestetik, bailarako gazteak erakartzeko eskoletara joango gara hitzaldiak ematera, batez ere bakardadearen ingurukoak, gure enpresaren helburua hobeto ulertzeko. Bailaran dauden eskolez gain, eskualdeko eskoletara joango gara gai berdinari buruz hitz egitea eta arrakasta edukiz probintzia osoan egitea daukagu helburu bezala.

Urtean zehar egingo ditugun ekintzak nahiko ugariak dira. Mendira eta zinemara joatea eta kontzertuak izango dira nagusiki gure ekintzak. Gure ideia astebururo bat egitea da. Ekintza horietara apuntatzeko web orria erabiliko dute, eta gure bazkideek gutxiago ordainduko dute. Bazkide ez diren horiek ekintzetan izena emateko aukera izango dute baina gehiago ordainduta. Gure helburua da bazkide ez diren horiek erakartzea da eta bazkide bilakatzea.



Mendira joaten garenean inguruko mendietan ibiltzen gara, hau da, Belabieta, Onddolar edo Loatzo esaterako. Ekintza egun osokoa izanez gero, agian Belabieta-Uzturre edo Loatzo- Uzturre bueltak egingo genituzke. Jende asko edo adin desberdinetakoak apuntatu ezker, txandak egingo genituzke ordu desberdinetan edo talde bakoitzak ibilaldi desberdin bat egingo luke.

Bestetik, zinemara joaten garenean, hainbat aukera izango dituzte, beti ere filma berrienak ekartzen saiatuko gara, adibidez, orain oso entzuna izan den Gladiator II ekarriko genuke.



Agian hemen bezeroekiko adin tartea nabarmena izatea arazo bat da, horregatik, pelikula desberdinak ekartzen saiatuko gara.

Ekintzekin jarraituz, egun pasak planteatuko ditugu herri edo hiri desberdinetara. Euskal Herria hobeto ezagutu dezaten, Zarautz, Bilbo, Zumaia... bezalako lekuetara joateko asmoa daukagu, eta bertako leku garrantzitsuenak bisitatuko ditugu, adibidez, Zumaia joan ezker bertako Flysh-ak.

Kontzertuekin bukatuz, Euskal Herrian famatuak edo ezagunak diren taldeak ekartzen saiatuko gara. Genero guztietako musika ekartzen saiatuko gara eta euskaraz abesten dutenak, hemengo kultura sustatzeko eta jendea ohartzeko euskal kultura kanpoko bezain ona dela. Kontzertuak Villabonan izango dira, Aljibean (leku itxi bat da), kontzertua oso handia izanez gero herriko plazan (itxita) edo ikastolan izango litzateke. Kontzertura joateko ordaindu egin beharko da, lehenago errepikatu dugun bezala bazkideek gutxiago ordaindu beharko dute eta kontzertuaren prezioa, kontzertuak berak baldintzatuko du.



Ekintzak alde batera utzita, uztailean udalekuak egingo ditugu, 12-18 urte bitarteko udalekuak izango dira baina txanda desberdinak egingo ditu. Uztailaren 1etik-7ra 18-20 urte bitarteko gazteak joango dira. Uztailaren 7tik-14ra 14-17 urte bitarteko gazteen txanda izango da eta uztailaren 14tik 21era 12-14 urteetako txanda. Udalekuak Arabako herri batean egingo dira.